



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2011ko abenduaren 29a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Jon Agirresarobe Lopetegi, Ekiñe Saizar Larrañaga, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume eta Jokin Izagirre Zabala.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

Elena Etxeberria Sedano zinegotziak (EAJ) eta Miriam Uranga Egurza zinegotziak (Orain) ez dute bilkuran parte hartu, herritik kanpo daudelako.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2011ko uztailaren 7ko ezohiko bilkurakoa eta 2011ko uztailaren 28ko, irailaren 29ko eta urriaren 27ko ohiko bilkuretakoak.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 12/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago.



- 3.- Onartzea, egoki bada, udal arkitekto lanpostuaren ordainsarien maila eta lansaioa aldatzea.
- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udalak 2010eko ekainaren 4an sinatu zuen Orioko kasko historikoa zaharberritzeko plan bereziaren 3. jarduketa urbanistikoa garatzeko hitzarmen urbanistikoaren eranskinari.
- 5.- Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Orioko bide publikoen udal inbentarioari.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko Gazteria departamentuko 'Gazteleku Ametsa' kudeatzeko zerbitzua lehiaketa publiko bidez kontratatzeko baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orria.
- 7.- Onartzea, egoki bada, kirol jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak emateko udal araudia.
- 8.- Onartzea, egoki bada, 'EGIN DEZAGUN BIDEA' lelopean egindako hainbat eskari, euskal presoen gaiari buruzkoak.
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN HONAKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2011KO UZTAILAREN 7KO EZOHICO BILKURAKOA ETA 2011KO UZTAILAREN 28KO, IRAILAREN 29KO ETA URRIAREN 27KO OHIKO BILKURETAKOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren honako bilkuretako aktak: 2011ko uztailaren 7ko ezohiko bilkurakoa eta 2011ko uztailaren 28ko, irailaren 29ko eta urriaren 27ko ohiko bilkuretakoak.

2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 12/2011 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA GEHITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 12/2011 zenbakidun espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 144.309,67 euroko zenbatekoa du.

Kreditua aldatzeko espediente bakar honek hasieran aurreikusita zeuden bi espedienteetan jasotakoa biltzen du eta kanpoan uzten du Arraunketako Teknikazio Zentroaren obrak finantzatzeko 225.512,77 euroko aurrekontu-partida. Hori guztia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du aipatutako kreditua aldatzeko espedientea ez dela aldez aurretik Ogasun batzorde informatzailean diktaminatutakoa eta, ondorioz, alkateari eskatzen dio mahai gainean uztea espediente horren onarpena, behar bezala aztertzeko Ogasun batzorde informatzailean eta, ondoren, dagokion bezala diktaminatu eta gero, udalbatzarrera pasatzea gaia, onarpena emateko. Bestalde, kontu-hartzaitzako udal zerbitzuari eskatzen dio zurrunago jokatu dezala aurrerantzean.

Aipamenengatik, alkateak hartzen du hitza eta honako hau erantzuten dio Jon Redondo zinegotziari: udal idazkari-kontu-hartzaileak informazio zehatz eta sakona eman duela 12/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari buruz, indarrean dagoen legediaren arabera; beraz, atzerapen gehiagorik gabe, gaia bozkatzea erabakitzen du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko abenduaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), eta Izagirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 12/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 144.309,67 euroko zenbatekoa du.

2.- JENDAURREAN JARTZEA kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Idazkaritza-kontu-hartzaitza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.



d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL ARKITEKTO LANPOSTUAREN ORDAINSARIEN MAILA ETA LANSAIOA ALDATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udal arkitekto lanpostua betetzen duen langileak hainbat eskari egin ditu, indarrean dagoen legediaren arabera. Gaia Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak aztertu zuen 2011ko abenduaren 26an eta, kontuan hartuz ez zela adostasunik lortu, hainbat bozketa egin behar dira, bere kasuan, dagozkion erabakiak hartzeko.

Ondorioz, udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAI EZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udal arkitekto lanpostuaren ordainsarien maila aldatzea, Euskadiko Toki Erakundeetako funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren –UDALHITZ– ordainsari orokorren 20. mailatik 24. mailara. Erabaki honek 2011ko abuztuaren 1etik aurrera izango du eragina.

Jarraian, udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egiten du udal arkitektoaren lansaioa aldatzeko buruz, eta emaitza honako hau da:

Aldeko botoa ematen dute Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu) zinegotziek, guztira **BOST ALDEKO BOTO**.

Kontrako botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ) zinegotziek, guztira **BOST KONTRAKO BOTO**.

Abstentzio botoa ematen du Izagirre (Orain) zinegotziak, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**.

Bozketan berdinketa gertatuenez (5 aldeko boto, 5 kontrako boto eta abstentzio bat), toki-arabidearen alorrean indarren dauden lege-xedapenek agintzen duten moduan, bigarren bozketa egiten da, emaitza berberarekin (5 aldeko boto, 5 kontrako



boto eta abstentzio boto bat). Alkateak kalitatezko botoa erabiltzen du eta, beraz, udalbatzarrak **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

ONARTZEA udal arkitekto lanpostuaren lansaioa aldatzea: %80ko lansaio partzialetik %100eko lansaio osora.

Azkenik, udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Izagirre (Orain), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

EZ ONARTZEA Udal arkitekto lanpostuaren lansaioaren aldaketak eragina izatea 2011ko abuztuaren 1etik aurrera; aldaketak, hortaz, 2012k urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta zera adierazten du:

1.- Udal arkitekto lanpostuaren ordainsarien maila aldatzea onartu egin behar izan dutela, alde batetik, legeak hala agintzen duelako eta, bestetik, aurretik behin-behingo kontratatua egon den aurreko arkitektoari 24. maila onartu zitzaiolako.

2.- Bere talde politikoak kontrako botoa eman duela udal arkitekto lanpostuaren lansaioa gehitzeko, alde batetik, ez duelako beharrezkoa ikusten eta, bestetik, krisialdi egoeratan nahitaezkoa delako aurrekontua egokitzea; gutxienez, pertsonaleko ordainsarien kapituluari dagokion gastu arrunta ez gehitzeko.

3.- Bere talde politikoak kritika zuzena egiten diola alkateari, kalitatezko botoa erabili duelako, EAJren zinegotzi batek ezin izan duela etorri baliatuz.

Aipamenengatik, alkateak hartzen du hitza eta kalitatezko botoa erabiltzearen zilegitasuna defendatzen du, indarrean dagoen legediak hala baimentzen duelako espreski. Bestalde, adierazten du bere talde politikoa (Bildu) erabat ados dagoela udal arkitekto lanpostuaren lansaioa gehitzearekin.

4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAK 2010EKO EKAINAREN 4AN SINATU ZUEN ORIOKO KASKO HISTORIKOA ZAHARBERRITZEKO PLAN BEREZIAREN 3. JARDUKETA URBANISTIKOA GARATZEKO HITZARMEN URBANISTIKOAREN ERANSKINARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko abenduaren 26an emandako diktamena



ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egiten du aipatutako hitzarmen urbanistikoari lehen onarpena emateari buruz, eta emaitza honako hau da:

Aldeko botoa ematen dute Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu) zinegotziek, guztira **BOST ALDEKO BOTO**.

Kontrako botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ) zinegotziek, guztira **BOST KONTRAKO BOTO**.

Abstentzio botoa ematen du Izagirre (Orain) zinegotziak, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**.

Bozketan berdinketa gertatuenez (5 aldeko boto, 5 kontrako boto eta abstentzio bat), toki-araubidearen alorrean indarren dauden lege-xedapenek agintzen duten moduan, bigarren bozketa egiten da, emaitza berberarekin (5 aldeko boto, 5 kontrako boto eta abstentzio boto bat). Alkateak kalitatezko botoa erabiltzen du eta, beraz, udalbatzarrak **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU**:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalak 2010eko ekainaren 4an sinatu zuen Orioko kasko historikoa zaharberritzeko plan bereziaren 3. jarduketa urbanistikoa garatzeko hitzarmen urbanistikoaren eranskinari. Eranskinak, hitzez hitz, honela dio:

HITZARMEN URBANISTIKOA, ORIOKO KASKO HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN 3. HIRIGINTZAKO JARDUKETA GARATZEKO.

ERANSKINA

Orioko udaletxean, 2012ko (...)

SINATZAILEAK

ALDE BATETIK: Beñat Solaberrieta Albizu alkatea, Orioko Udalaren izenean.

BESTE ALDETIK: Iñaki Alzuguren Etxeberria, adinduna, 15.801.893-L nortasun-agiria eta honako helbidea duena: Monasterio de Tulebras, 2, 1. solairua, 14. bulegoa, Iruñea.

LURRA, PROMOCION Y GESTIÓN SL entitate merkantilaren izenean parte hartzen du; entitatea pertsona bakarrekoa da, eta honako helbidea du: Monasterio de Tulebras, 2, 1. solairua, 14. bulegoa, Iruñea; Nafarroako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago (772. liburukia, 1. folioa, NA-15845 orrialdea, 1. inskripzioa), B-31694771 IFK du, eta 2000ko ekainaren 23an eratu zen, Jose M. Marco Garcia-Mina Iruñeko notarioak baimendutako eskrituraren bidez (protokolo-zenbakia: 1.681).

Entitate merkantilaren administratzaile bakar gisa parte hartzen du, kargu horretarako izendatua izan baitzen 2003ko urtarrilaren 21ean, Jose M. Marco



Garcia-Mina Iruñeko notarioak baimendutako eskrituraren bidez (protokolo-zenbakia: 114).

AURREKARIAK

I. 2010eko ekainaren 4an Orioko Udalak eta LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitate merkantilak hitzarmen urbanistiko bat sinatu zuten, Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintzako Jarduketa garatzeko.

Bi aldeen artean adostutakoaren barruan zegoen Jarduketa horretako 3.2 exekuzio-unitateko lurrazpiko aparkalekuko plazak jasotzen dituen partzelaren gaineko urbanizazio-obrak exekutatzea; partzela horrek izaera pribatuari eusten dio baina erabilera publikoko zortasuna dauka; hori guztia jasota geratu zen Orioko Udalak onartutako eta Jabetzaren Erregistroan inskribatutako Birpartzelazio Proiektuan.

II. Orioko Udalak aparkaleku horiek eraikitzeko baimena eman zuen, LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SLk aurkeztutako obra-proiektuan oinarrituta; obra-proiektu harekin batera zetorren urbanizazio obra gehigarrien proiektu bat, aurreko paragrafoan aipatutako erabilera publikoko eremuei buruzkoa.

III. Orioko Kasko Historikoaren irisgarritasuna hobetzeko analisi orokor baten barruan, Udalak ondorioztatu du, interes publikoko arrazoiengatik eta udal zerbitzu teknikoaren txostenekin bat etorrira, komeni dela hasieran onartutako proiektua aldatzea, obraren exekuzioa aprobetxatu ahal izateko, kasko historikoaren goiko aldearen irisgarritasuna hobetzeko eta inguruaren kalitate urbanoa ere hobetzeko. Horretarako, udal zerbitzu teknikoek hobekuntza batzuk diseinatu dituzte; hobekuntza horien exekuzioak 95.588,56 euroko (BEZ barne) kostua dauka, espedientean dauden txostenen arabera.

IV. Goian adierazitakoarekin bat etorritz, urbanizazio-obra horien gainkostua Orioko Udalak hartu beharko du bere gain, interes publikoko helburuak betetzeko egingo baitira: kasko historikoaren goiko aldearen irisgarritasuna hobetzeko eta inguruaren kalitate urbanoa ere hobetzeko.

V. Hori dela eta, bi aldeek erabakitzen dute 2010eko ekainaren 4an sinatutako hitzarmen urbanistikoaren eranskin hau sinatzea, honako klausulen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Bi aldeak ados jartzen dira Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Jarduketa Urbanistikoaren 3.2 exekuzio-unitatean proiektatutako urbanizazio-obretan hobekuntzak egiteko, espedientean jasota dauden txostenen arabera; hobekuntza horien kostua 95.588,56 eurokoa da (BEZ barne).

BIGARRENA.- Hobekuntza-obra horiek LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SLk egingo ditu eta Orioko Udalak hartuko ditu bere gain gastu guztiak.



HIRUGARRENA.- Behin bukatu eta onartuta daudenean ordainduko ditu lanak Orioko Udalak.

LAUGARRENA.- Lanen zuzendaritza fakultatiboa lñaki Etxeberria Izagirre arkitektoaren ardurapekoa izango da, berea baita proiektua osotasunean; nolahi ere, udal zerbitzu teknikoek lanak ikuskatzeko ahalmena izango dute.

BOSGARRENA.- Hitzarmenaren eranskin honek izaera administratiboa du eta, onartua izateko, ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean ezartzen diren tramiteak bete beharko ditu. Hitzarmenaren aplikaziotik sor daitezkeen auzietarako administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren arauak aplikatuko dira.

Eta, dokumentu honen edukiekin adostasuna eta onarpena erakusteko, goian adierazitako toki eta egunetan sinatzen ditugu bi kopia.

2.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriak, 8. atalean, ezarritakoa betez, **JENDAURREAN JARTZEA** hitzarmen urbanistikoaren eranskinaren eduki osoa, **HOGEI LANEGUNEKO** epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrek aukera izan dezaten aztertzeko eta alegazioak aurkezteko.

Ondoren, udalbatzarrak eman beharko dio behin betiko onarpena, aurkez litezkeen alegazioak onartuz edo atzera botaz

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela ez daudelako ados Udalaren gastua 95.588,56 eurotan (BEZ barne) gehitzearekin, kontuan hartuta bizi dugun krisi egoera latza. Bestalde, berriro kritika zuzena egiten dio alkateari, kalitatezko botoa erabili duelako, EAJren zinegotzi batek ezin izan duela etorri baliatuz.

5.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO BIDE PUBLIKOEN UDAL INBENTARIOARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko bide publikoen udal inbentarioa Conchi Uriarte Seminario nekazaritzako ingeniari teknikoak eta Nekane Azarola Martinez abokatuak idatzi dute.

Orioko udalbatzarrak 2011ko apirilaren 6an egindako ezohiko bilkuran honako erabakiak hartu zituen, besteak beste: lehen onarpena ematea Orioko bide publikoen udal inbentarioari eta jendaurrean jartzea inbentario hori.

2011ko ekainaren 13an argitaratu zen jendaurreko epea zabaltzeari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, herritarrei aukera emateko alegazioak aurkezteko.



Jendaurreko epean 15 bat lagunek kontsultatu zuten dokumentua eta 8k aurkeztu zituzten alegazioak; alegazio horiek sei bideri buruzkoak izan ziren.

Inbentarioaren egileek txosten tekniko-juridikoa egin dute alegazio horiei buruz eta, bertan, udalbatzarrari erabaki-proposamena egin diote.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko abenduaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONTZAT HARTZEA Jesus Andres Ruiz Oterok, Marcos Iradi Lopek, Juan Carlos Gorospe Loiartek, Ramon Esnal Atxega eta Josune Aranberri Garaialdek aurkeztutako alegazioak, inbentarioaren egileek egindako txosten tekniko-juridikoan oinarrituta. Hortaz, Bordatxuri etxera doan bidea bide publiko gisa sartuko da inbentarioan eta 20. zenbakidun bidearen trazatua aldatu egingo da.

2.- PARTZIALKI ONTZAT HARTZEA Luis Figuerido Garmendiak aurkeztutako alegazioa, inbentarioaren egileek egindako txosten tekniko-juridikoan oinarrituta. Hortaz, Aranoko erreka bidearen zati bat bide publiko gisa sartuko da inbentarioan.

3.- ATZERA BOTATZEA Jose Ignacio San Sebastian Makazagak (12 eta 14 bideei buruz) aurkeztutako eta Ramon Esnal Atxegak (2.1 eta E bideari buruz) aurkeztutako alegazioak, inbentarioaren egileek egindako txosten tekniko-juridikoan oinarrituta.

4.- INFORMAZIOA EMATEA Francisco Lertxundi Argiñenari eta M. Jesus Lertxundi Lizasori beren idatzian egin dituzten eskaerei buruz, inbentarioaren egileek egindako txosten tekniko-juridikoan oinarrituta.

5.- JAKINARAZTEA alegazioak aurkeztu dituztenei udalbatzarrak zein erabaki hartu dituen beren alegazioei buruz, aipatutako txosten tekniko-juridikoa bidaliz.

6.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA Orioko bide publikoen udal inbentarioa, aurkeztu diren alegazioei erantzunez udalbatzarrak onartu dituen eta goian jasota dauden aldaketak sartuta.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO GAZTERIA DEPARTAMENTUKO 'GAZTELEKU AMETSA' KUDEATZEKO ZERBITZUA LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirola, Aisialdia eta Gaztedia batzorde informatzaileak 2011ko abenduaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia



eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]::

ONARTZEA Orioko Udaleko Gazteria departamentuko 'Gazteleku Ametsa' kudeatzeko zerbitzua lehiaketa publiko bidez kontratatzeko baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orria; baldintza-orriaren laburpena hau da:

1. Erakunde adjudikatzailea:

a) **Erakundea:** Orioko Udala.

b) **Espedientea bideratuko duen departamentua:** Idazkaritza–Kontu-hartzailletza.

2. Kontratuaren helburua:

a) **Helburuaren azalpena:** Orioko Udalaren Ametsa Gaztelekuaren kudeaketa zerbitzua, baldintza teknikoen eta ekonomiko-administratiboen arabera egingo dena.

b) **Exekuzio epea:** Epea, kontratua esleitzen den egunetik 2012ko abenduaren 31a arte. Urtez urteko luzapenak. Betiere gehienez 4 urtekoa izango da.

3. Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era:

a) **Tramitazioa:** Ohikoa.

b) **Prozedura:** Irekia.

c) **Era:** Lehiaketa.

4. Lizitazioaren kopurua:

37.000 euro, BEZa barne. Lizitatzailleek hobe dezakete kopuru hori.

5. Garantiak:

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren %5 (BEZ kanpo).

6. Iragarki gastuak:

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7. Agiriak jasotzeko:

Espedienteko dokumentazioa Orioko Udaleko Idazkaritzan aztertu daiteke.

8. Eskaintzak aurkezteko:

a) **Epea:** 15 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.



b) Aurkeztu behar diren agiriak: Baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza–Kontu-hartzailtzan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.

d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

9. Eskaintzen irekiera:

a) Tokia: Orioko Udaletxea.

b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laugarren laneguna. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.

c) Ordua: Eguerdiko 13:00etan.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KIROL JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO UDAL ARAUDIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirola, Aisialdia eta Gaztedia batzorde informatzaileak 2011ko abenduaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]::

ONARTZEA kirol jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak emateko udal araudia. Araudiak, hitzez hitz, honela dio:

KIROL EKINTZAK ETA JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRU LAGUNTZEN ARAUTEGIA

1.-Eskumena

Arautegi hau Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzen dituen Legearen 4.1 b) eta 25. artikulua ematen dituen eskumenei jarraituz eta Korporazio Lokaleko Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluen eta ondorengo araberan onartzen da.

2.-Helburua

Deialdi honen helburua hau da: Orioko irabazi asmorik gabeko kirol elkarteek 2012an edota 2011-2012 denboraldian egingo dituzten jarduerak eta egitasmoak diruz laguntzeko Udalak erabiliko dituen irizpideak finkatzea eta prozedura zehaztea.

3.- Lagunduko diren jarduerak motak



Diru laguntzak ondorengo jardueretarako eskatu ahal izango dira:

a) Orioko kirol taldeen OHIKO jarduerak.

b) Orion burutu nahi diren EZOHIKO edo aldian behingo jarduerak. Ezohikoak edo aldian behingoak diren ala ez dagokion udal batzordeak erabakiko du, aholku batzordeak proposatuta.

4.-Finantzazioa

Emango diren diru kopuruak 2012ko aurrekontuaren arabera izango dira.

5.- Irizpide orokorrak

1. Diru laguntza hauen azken helburua dirurik irabazteko asmorik gabeko kirol zerbitzuak bultzatzea da.

2. Diru laguntza hauek beste batzuekin bateragarriak dira, baina aldez aurretik adierazi behar da jarduera horietarako beste erakunderen bati diru laguntza eskatu zaion ala ez eta eskatu bazaio: nori, zenbatekoa, onartutako dirulaguntza, erabakitzeke dirulaguntza eta baztertutako dirulaguntza. Edozein kasutan, diru laguntza guztiak batuta jasotako kopurua ez da inoiz izango gastuen % 100 baino gehiagokoa.

6.- Eskatzaileak

Udalaren diru laguntza eskatu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte elkarteek:

a) Elkarte eskatzaileek, euskarari dagokionez, udal ordenantzetan zehaztutakoa bete beharko dute.

b) Elkartearen aurrekontuan aurreikusitako gastuen % 50, gutxienez, Udalaren diru laguntza ez den beste bideren batetik estali beharko dute elkarteek.

c) Indarrean dagoen legediaren arabera osatuta egon behar dute, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarte eta Erakundearen erregistroan errolatuta.

d) Identifikazio Fiskalerako Kodea izan behar dute eta zerga betebeharretan egunean egon.

e) Elkartearen egoitza Orion izan behar dute.

f) Udalaren lokalen bat erabiltzen duten elkarteek, Udalarekin hitzartutako erabilera arauak zorrotz bete beharko dituzte.

g) Eskola kirolari buruz Gipuzkoan indarrean dagoen araudia bete beharko dute.



Diru laguntza hauen onuradun izaera lortzeko betebeharrak azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan xedatutakoak izango dira.

7.- Eskaeren aurkezpena

Eskaera egiteko, eranskinean jasotako eskaera orria bete behar da. Egitasmo edo jardueraren arduradunak eskaera orri ofizialaren atal guztiak bete beharko ditu eta aurreko urteko gastuen justifikanteak eta balantzea, ondoren, Udaleko erregistroan aurkeztu. Eskaera orriarekin batera aurkeztu beharko dituzte:

Diru laguntzak eskatzeko azken eguna 2012ko urtarrilaren 27a izango da.

Ezohikoen epea ekintza ospatu baino hilabete lehenago amaituko da, hala ere urte hasieran zehaztea badago hala egingo da.

Eskaera orri ofizialaz gain, elkarteak aurkez ditzake bere jarduerari buruzko agiri osagarriak.

Diru laguntza lehendabiziko aldiz eskatzen dutenek, eskaera orri ofizialaz gain, ondoko agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- *Eusko Jaurlaritzako kirol elkarte edo erakundeen erregistroan erroldatuta daudela ziurtatzen duen agiria.*

Elkartearen estatutuak.

- *Arduradun(ar)en nortasun agiriaren fotokopia.*
- *Identifikazio Fiskalerako Kodearen fotokopia.*

EZOHIKO KIROL JARDUERETARAKO DIRU LAGUNTZA ESKATZEN DUTENEK

- *Probaren historia edo nondik norakoak.*
- *Txosten teknikoa, jardueraren antolaketaren zehaztasunak emateko.*
- *Parte-hartzaile kopurua.*
- *Jarduerak noiz eta non izango diren.*
- *Antolaketarako behar diren material eta giza baliabideak:*
- *Jarduera antolatuko duen pertsona edo taldearen identifikazioa.*
- *Txosten ekonomikoa, jardueraren gastuak eta sarrerak zehaztuta*
- *Erantzukizun zibil eta istripuetarako aseguruaren kopia.*



Eskaera egindakoan, agiriren bat falta bada, 15 eguneko epea izango du elkarteak aurkezteko, eta behin epe hori amaitutakoan, falta dena osatu ez bada, artxibatu egingo da eskaera.

Aurreko urteren batean eskaera egindako elkarte batek aldaketaren bat izan badu (estatutuetan, Identifikazio Fiskaleko Kodean eta abar), aldaketari dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu.

8.- Diru laguntzak emateko ebaluazioa eta irizpideak

Aholku batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak, eta berak tratatuko ditu lehenetsunak eta eman beharreko zenbatekoak. Ondoren, behin betiko diktamena Kirola Batzordean hartzeko.

Diru laguntzak emateko baloratuko diren puntuak hauek dira:

OHIKO TALDE KIROLETAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

- Elkartearen FORMAKUNTZA ADINETAKO (12-19) urte bitarteko lan talde kopurua*
- Elkartearen 18 urtetik gorakoen talde kopurua*

OHIKO BANAKAKO KIROLEN JARDUERETARARO LAGUNTZAK

- Elkartearen partaide kopurua*
- Antolatzen diren ekintzak*

EZOHIKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

- Jardueraren helburuak eta izaera:*
- Herritarrentzat izatea eta aurkeztutako egitasmoa herritarrei zabaltzea.*
- Kolektibo berezientzako jarduerak izatea edo horien parte-hartzea bideratzea:*

3. adina, haurrak, ezinduak, etorkinak eta, orokorrean, kirol ekintzetatik aparte egon ohi diren kolektiboak...

- Partehartzaileen kopurua, iraupena, jardueraren esparrua eta zabalkundea.*
- Jardueraren finantzatze maila*
- Jarduera antolatzeko azpiegitura eta giza baliabideak*
- Jardueraren lehia maila*



Proposatzen den diru laguntzaren kopuruak ez du programaren aurrekontuaren % 50 gaindituko.

9.- Diru laguntzen ordainketa

Diru laguntza guztia epe batean ordainduko da. Horretarako eskaera orri ofiziala eta aurreko urteko gastuen justifikanteak aurkeztu beharko dira. Aurreko urteko diru laguntzetako diru guztia behar izan ez bada udalari bueltatu egin beharko zaio.

Ezohiko kasuetan ekintza amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan aurkeztu beharko dira gastu guztien justifikanteak eta balantzea.

10.-Publizitatea

Diruz lagundutako jardueren publizitatea euskaraz egingo da; ele bitan ere egin ahal izango da, beti ere euskarari lehentasuna emanaz. Orioko Udalaren laguntza nahitaez adierazi beharko da.

11.-Baldintzak ez betetzea

Oinarriotan jarritako baldintzak betetzen ez badira, diru laguntza emateari utzi egingo zaio, eta halakoetan, gainera, azken urtean jasotako diru guztia itzuli egin beharko du elkarteak.

12. Interpretazioa

Oinarrion interpretazioari edo ezarpenean sor litezkeen zalantzak aholku batzordeak tratatuko ditu, ondoren dagokion udal batzorde informatzailean diktaminatuko dira.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 'EGIN DEZAGUN BIDEA' LELOPEAN EGINDAKO HAINBAT ESKARI, EUSKAL PRESOEN GAIARI BURUZKOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Eskariak honela dio, hitzez hitz:

Aro politiko berri batek Euskal Herria argitu du. Hamarkadetan luzatu den gatazka politikoari irtenbide justu bat aurkitzeko eginahalean bat egiten dute Euskal Herriko nahiz nazioarteko eragile politikoek, sindikalek eta erakunde anitzek. Eginahal honen fruituak ikusten ari gara, eta gaur ukaezina da gure herrian benetako bake eta demokrazia egoera batera hurbiltzeko bidea egiten dihardugula.

Asko dugu egiteko, baina ez da gutxi egin duguna. Azken hilabeteotako elkarrizketa saioek eta gauzatu diren akordio eta ebazpenek gatazkaren konponbiderako oinarriak marratzu dizkigute.



Bidea egiten dihardugu beraz, poliki-poliki, geltokiz-geltoki.

Gatazkaren konponbide prozesuan, arretaz begiratu behar zaie gatazkaren sorburuei eta gatazkaren ondorioei. Horrek, besteak beste, euskal preso politikoen egoeraz hitz egitera garamatza. Azken aste eta hilabeteotan asko izan dira egoera horri erreparatu diotenak: Gernikako Akordiotik hasi eta Euskal Herriko nahiz espainiar estatuko hainbat alderditako politikarien eskutik iritsi zaizkigu gaiari buruzko adierazpen eta balorazioak.

Giza eskubideen alorrean lanean ari diren nazioarteko elkarteek ere beharrezkoa ikusi du presoen egoerari erreparatzea. Presoen egoera agenda politikoan dago. Gure aldetik argi dugu espetxe politika konponbidearen gakoetara ekarri behar dela. Zentzu horretan, munduan zeharreko gatazka ezberdinetan presoen aferari emandako irtenbideetatik ikasgaiak atera ditzakegula uste dugu, kasu Irlandako prozesutik nahiz Hego Afrikatik. Presoen egoera agenda politikoan dago, bai, baina espetxe politikak oinarrizko eskubideak ukatzen ditu oraindik orain. Ezarritako zigorrak bete ondoren espetxean mantentzen dituzte hainbat preso. Gaixotasun larriak dituztenak giltzapean dituzte gaur gaurkoz. Sakabanaketak istripuak eragiten jarraitzen du. Larritasun handiz bizi ditugun egoerak dira, urgentziaz konpondu beharrekoak.

Egoera bidegabe honen aurrean garrantzitsua da jendartearen inplikazioa. Euskal Herrian gehiengo politiko, sindikal eta sozialak hamaika aldiz eskatu du egoera honekin amaitzeko. Egoerak antzekoa izaten jarraitzen duenez, eskaerak indartzeko garaian gaudela uste dugu.

Manifestu honekin bat egiten dugun norbanako, kolektibo eta erakundeok berehala honako neurriak hartzeko eskatzen diogu dagokionari:

1- Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea.

2- Espainiar estatuan ezartzen den 197/06 doktrina bertan behera uztea, eta zigorra bete duten presoak askatzea. Finean, bizi osorako espetxe zigorrarekin amaitzea.

3- Frantziar estatuan ezartzen den bizi osorako zigorra bertan behera uztea, baldintzapeko askatasunei bide emanez.

4- Zigorren 3/4ak bete dituzten presoen kaleratzea.

5- Gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea, eta bestelako gaixotasunak dituzten presoen zaintza egokirako beharrezko neurriak hartzea. Finean presoen osasunerako eskubidea bermatzea da eskatzen duguna.

6- Ireki den aro berrian gatazkaren soluzio bidean modu positiboan eragiteko frantziar eta espainiar estatuek darabilten espetxe politika konponbide gakoetan ezartzea.



Aldarrikapen horiei loturik, dei egin nahi diogu euskal herritar orori 2012ko urtarrilaren 7an Bilbon egingo den Herri Mobilizazio Orokorrean parte hartzera.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango duela, nahiz eta ados egon presoen sakabanaketa amaitzearekin eta Parot izeneko doktrina amaitzearekin, eskarian ez dagoelako aipamenik ez terrorismoaren biktimei buruz, ez haien minari buruz eta ezta haiei barkamena eskatzeari buruz ere. Ondorioz, bere talde politikoaren ustetan, idatziak jasotzen dituen eskari horiek motz geratzen dira.

Jokin Izagirre zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoa giza-eskubide guztiak defendatzearen alde dagoela erabat, balorazio politikoetan sartu gabe. Esaten du aitorten instituzionalak ez direla nahikoak eta bere talde politikoak beharrezkotzat jotzen duela giza eskubide guztien defentsarako udal plan bat. Hori dela-eta, adierazten du ez duela parte hartuko bozketan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, egindako adierazpenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA 'EGIN DEZAGUN BIDEA' lelopean egindako eskariak, euskal presoen gaiari buruzkoak, goian jasota dauden bezala.

Jokin Izagirre zinegotziak (Orain) ez du parte hartu bozketan, gorago azaldutako arrazoiengatik.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak urte berri ona opa die guztiei eta, segidan, bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,